



Astearterko hitzaldian, Kongoko historia eta bertako baliabide naturalen ustiatetari buruz hitz egin zen.

Jardunaldi jendetsuak

Palestina, Kongo eta Sahara herrialdeetako historia eta egoera ezagutzeko aukera paregabea izan dira

XI. Jardunaldi Internazionalistek herritar ugari bildu dituzte aste honetan burutu diren DVD emanaldi eta hitzaldietan. Ekintza hauek hiru herriren, Palestina, Kongo eta Sahararen egoera eta historia ezagutzeko balio izan dute. Aurtengo edizioari bihar emango zaio bukaera afari herrikoiarekin eta mahaikideek Kamerungo postre tipiko bat probatu ahal izango dute gainera. •

Hezkuntzari buruzko zikloa

Haur tiranoak. Mitotik harago hori da Enkarni Gomezek asteazkenean eskaini zuen hitzaldiaren izena. Enkarnik hainbat argibide eta azalpen eman zituen haur tiranorik ez hezteko. Asteazkeneko hitzaldia Sanitate Departamentuak antolatutako *Nola hezi gure seme-alabak* hitzaldi sortako lehenengoa dugu eta urte osoan zehar egingo dena. Departamentuak zikloa guraso, begirale edo hezitzaileen ztat eredu edo gida moduan baliogarri izatea espero du. •



Zabalik da 2008ko errenta aitortpena egiteko epea: euskaraz ere egin daiteke /4-5

AISIA /3

Udako txoko, udaleku itxi eta kanpaldiak aurkeztu zituzten Ttakun elkarteak eta Udalak

KIROLA /6

Ondo hasi du Lasarte-Oriak Gipuzkoako Herriarteko pilota Txapelketa

KULTURA /8

Dantza garaikidea eta Makulu Ken, Usurbilgo II. Kale Antzerki egunean

SANCHO TABERNA

BERRIRO IREKITA !!

Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372075

Bideo Lagunak

TIEN 21ekin RENOVE PLANa ez da bukatu

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Udaberrian ere eskaintzak!!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
e-maila: jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Zorion-agurrak



Alain

Zorionak! 9 muxe handi, Lander, guraso eta familia osoaren partetik. Txapeldun !!



Nerea

Zorionak!!! 7 muxe goxo goxo eta ondo pasa matiomas!



Ander

Zorionak zure gurasoen, aiton-amona eta izeba-osaben partetik. Muxe handi bat.



Aiora

Zorionak maitia! Txoko-marrubizko zazpi muxe potolo denon partetik.



Unai

Zorionak bihurri! 4 muxe pottolo zuretzat maitia. Aitaxo, Narrea eta amatxoren partetik



Olaia

Zorionak sorgina. Bi muxe pottolo familiaren partetik



Bea eta Karlos

Zorionak ! Hogeita ... muxeak . Adina dela eta lasaigo ospatu beharko dugu.



Feli

Zorionak amona Feli! Ondo pasa zure urtebetetzean. Etxeko ak eta Amaur.



Lur

Zorionak panpoxita eta oso ondo pasa! Txokolatezko 5 muxe haundi piraten partetik.



Nagore, Iratí eta Alex

Zorionak! Ondo pasa zuen urtebetetzeetan. Muxe haundi-haundi bat familia osoaren partetik.



Aitor eta Julen

Zorionak bikote eta txokolatzeko muxe pila bat familiaren guztiaren partetik! Ondo pasa zuen egunean!

Guardiak

Ostirala, 24

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 25

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 26

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 27

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteartea, 28

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 29

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 30

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Ostirala, 1

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 2

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 3

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 4

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteartea, 5

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 6

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 7

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Ezcaray-en duplex bat saltzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago. Ia berria. Tel.: 652774679

• Gela alokatzen da Lasarte-Oriako etxebizitza batean. Tel.: 600 612 085

Salerosketak

• Mobil home bat saltzen dugu. 11x4 metro, berria eta luxuzkoa. Lizarako kanping-ean partzela pribatua. 87.300 euro. Harremanetarako zenbakia, Tel.: 658 089 380.

• Renault espace bat saltzen dut. 2004 urtekoa, 110.000 km, diesel, ondo zaindua, 7 pertsonentzako, beraztertuta eta bermearekin. 12000 euro. Harremanetarako mikelponga@hotmail.com

• Salgai haurra eramateko kotxea eta aulkia. Jane Nomad markakoa da. Egoera onean. Tel.: 687 965454.

Lan-eskariak

• Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 693 60 12 22

• Geriatria laguntzailea esperientziaduna eskaintzen da pertsona adinduek eta haurrak zaintzeko. Etxeko gauzak egiteko prest. Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte. Telefono zenbakia: 620 646769

• Emakume bat eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko edo atariak garbitzeko. Tel.: 680 581 914.

• Frantseseko klaseak ematen dira. Eskarmentua haur eta helduekin. Tel.: 680 581 914.

• Emakume bat eskaintzen da eguerditan garbiketa lanak egiteko (bulegoak, etxeak, tabernak). Tel.: 667 272 880.

• Lasarte-Orian bizi den emakume gaztea eskaintzen da, etxeko lanak, garbiketak edo pertsona helduak zaintzeko. Harremanetarako zenbakia, 671 474 513.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com • www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com

Jaiotzak



Salma Benito Gordillo,
apirilaren 16an
Gorka Lucero Barrena,
apirilaren 15ean
Anne García Alonso,
apirilaren 10ean

Heriotzak



Sotero Zarauz Etxabe,
apirilaren 20an 81 urte zituela.
Margarita Larumbe Iturbide,
apirilaren 11n 92 urte zituela.
Montserrat Pascual Biencinto,
apirilaren 21ean 81 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Goza ezazu uda euskaraz

■ Udako txokoak, udaleku itxiak eta kanpaldiek osatzen dute Ttakun Kultur Elkarteak asteazkenean aurkeztu zuen udako eskaintza

TXINTXARRI

Asteazkenean 2009ko Udako txoko, udaleku itxi eta kanpaldietako eskaintza aurkeztu zen Ttakun Kultur Elkartearen burututako prentsaurrekoan.

Rikardo Ortega, Udaleko Euskarako Batzordeko burua, Pili Bermejo Ttakuneko aisia saileko arduraduna eta txoko eta kanpaldien arduradunak egon ziren bertan.


"Eskaintza hau posible da Ttakunek eta Udalak sinatutako hitzarmenari esker," gogoratu zuen Ricardo Ortegak.

Aurtengoan 24. edizioa izango dela aipatu eta egoera aldaketari buruz hitz egin zuen, "garai batean programaren helburua, euskara ikasten zuten belaunaldi berriek eskolan ikasitakoa udan erabiltzeko aukera izatea zen. Gaur egungo egoerak hobera egin du nabarmenki eta beraz helburua ezberdina da, haurrek eta gazteek dena euskaraz ikasten baitute."

Euskaraz jolastea

"Gaur egungo helburua, haurrek euskararekin jolastea, gustukoa duten gutzia euskaraz egitea da" azpimarratu zuen Rikardok.

Idea bera erabili zuen Pili Bermejo Ttakuneko aisia arduradunak, "udalekuean elkarbizitza bultzatzeaz gain, euskaraz



Rikardo Ortega, Pili Bermejo eta udaleku ezberdinetako arduradunak asteazkenean egin zen prentsaurrekoan.

ondo pasatzea da gure helburua. Haur eta gazteen autonomia garatuz herrian eta herriatik kanpo ekintza dibertigarriak eskaintzea da gure asmoa."

Honela, HH2-tik LH6-ra Udako txokoak daude "adina-aren arabera beharretara egokitutako egitaraua, jolasak, irteerak... prestatu ditugu."

LH-3tik LH6rako gaztetxoek Mendigorriara joateko aukera dute uztailako lehenengo hamabostaldian. Bertan kirola,

txangoak edo jokoak egingo dira.

Adin honetarako berrikuntza, udaleku itxien ostean, udako txokoetan parte hartzeko aukera dutela da. "Udak jarraitzea izan dezan egin dugu. Gainera, taldea sortzen bada, hezitzaile bera izango dute, beste taldeen martxa ez eragotzeko," adierazi du Piliak.

DBH eta Batxilergoko gazteentzat, aurreko zenbaki batean azaldu genuen bezala,

kanpaldi ibiltariak daude, Ktg eta Kosta ala kosta.

Izena ematea

Udako txokoetan izena emateko epea maiatzaren 27an bukatzen da eta udaleku itxi eta kanpaldien kasuan, ordea, maiatzaren 15ean.

Matrikula internet bidez edo Ttakuneko bulegoan egin daiteke. Udako txokoen orriak Ama-raun Ludotekan ere entregatu daitezke. •

Hondakin legearen alde

Hiru hilabete pasa dira, Errausketaren Aurkako Plataformaren Koordinadorak Hondakinaren Euskal Legea EAEko Legebiltzarrean aurkeztu ahal izateko 30.000 sinadura biltzeari ekin zionetik.

Erronka hau burutzeko azken txanpan sartu da Koordinadora eta deia luzatu nahi die oraindik sinatzen ez dutenei: "oso garrantzitsua da sinadura guztiak biltzea. Gure mezua isilarazteko orduan, ez diegu akatsak edo gabeziak erabiltzeko aukerarik eman behar. Guztiok sinatu behar dugu," adierazi du.

Manifestazioa

Lasarte-Orian hainbat herritarrek sinatu dute *Lasarte-Oria Bizirik* taldeak larunbatero ezarri dituen mahaietan.

Bihar, ordea, ez da sinaketa mahairik egongo, Errausketaren Aurkako Plataformaren

Koordinadorak kanpainari amaiera emateko, arratsaldeko 18:00etan manifestazioa antolatu baitu Donostiako kaleetan zehar.

Manifestazioaren helburua errausketak alternatiba askoz egokiagoa eta osasuntsuagoa duela aldarrikatzea da: Atez Ateko hondakinaren biltzea, materia organikoarena barne.

Usurbilgo eredua

Usurbilen dagoeneko martxan da egitasmoa eta beste herri batzuk ere ildo bera jarraitzeko asmoa dutela badaki koordinadorak. Horregatik, "herriar eta auzokoen elkarrekin, talde ekologistek eta sindikatuek errausketaren aurka eraturako mugimenduak konpromisoaren eta erantzukizunaren arloko benetako irakasbidea eskaini du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta mankomunitate gehienek aldean." •



Eliz musika komentuan

Gaur, 19:30ean, Brigitarren komentuan, Danok Kideak antolatzen dituen IV. Musika Topaketa zikloen barruan kontzertu berri bat entzuteko aukera egongo da.

Oraingoan XVIII. mendeko eliz musika izango da entzungai, Juan Sebastian Bach-en *Pasión según San Mateo* obrako zati zoragarria; Fray Agustín de Etcheberria frantziskanoaren *Miserere* eta bukatzeko Giovanni Battista Pergolesiren obra maisua den *Stabat Mater*.

Obra hauen interpretatzailerak izen onekoak dira musika estilo honetan, Ainhoa Merzero sopranoa, Ariel Cruz Laurencio kontratenore kuartarra eta Alberto Saez Puente organista.

Lekuak duen akustika berezia kontutan izanik, honelako erreperitorio ederra entzuteko Brigitarren komentua bezalako eszenatokirik ez dago.

Hau guztia dela eta ikuskitan paregabe hau ikustera gonbidatzen zaituztegu. •

EUSKARAREN MARATOIA

7. Maratoiko DVDa gaur aurkeztuko da Kultur Etxean

Hasierako txupinazoa, larunbateko *Klik on* antzerkia, Teresategira edo Buruntzako erronkak, Okendon eta plaza-tik kanpo,... urriaren 18 eta 19ko hainbat oroitzen gordeta ditugu.

Gaur, berriro ere, egun horietako bizipenak gogoratzeko aukera dago Manuel Lekuona Kultur etxeko aretoan, 20:00etatik aurrera, egingo den 7. Euskararen Maratoiko DVDaren aurkezpen ekitaldian.

40 orduen ordu beteko laburpena eskainiko da, zortzikotearen xelebrekeriez berriro gozatzeko aukera egongo da eta sorpresak ere iragarri dituzte.

Ekitaldira sartzeko gonbidapena beharko da. Baina egon lasai 19:30ak aldera kultur etxeko sarreraren bertan eskuratu ahalko duzu eta zurea.

DVDari dagokionez, ordu beteko laburpena, kirol frogak, Landaberriko ikasle ohien jaialdia, sagardotegien jira eta *Bero-Bero* abestiaren bideo klipak, besteak beste, osatzen dute.

Hau eskuratzeko emanaldiaren euskarazko den mahaira hurbildu beharko zarete. Prezioa zortzi eurotako izango da.

Arduradunek jakin arazi dutenez, DVDak agortzen badira, interesatuei datuak hartu eta etxera bidaliko zaie kopia bat.

Etorri zaitez Manuel Lekuona kultur etxera eta prest egon 7. Euskararen Maratoiko giroa berriro ere gure artean egongo baita. •

MUSIKA ESKOLA

Goiatz Irazabal Txistulari Gazteen lehiaketan

Bihar Hernanin ospatuko den V. Txistulari Gazteen Lehiaketan, Lasarte-Oriako Udala Musika Eskolako txistulak ikasle den Goiatz Irazabal añorgatarrak parte hartuko du.

Eguerdiko 12:00etatik aurrera, Milagrosa kaperan, 13 eta 16 urte bitarteko B mailan lehiatuko da Josu Izagirren ikasle gaztea.

Goiatzek lehiaketarako aurkeztzen duen obra Jose Inazio Ansorenak txistu eta dantabolinarekin moldatutako *Ume eder bat* abestia dugu. Josu Izagirrek adierazi digunez, "ea dakien guztia jotzeko agertzen duen." •

Kiroltako agenda

FUTBOLA

Larunbata 25

10:30ean, Ostarar-Sporting de Herrera (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.

11:30ean, Lazkao-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II, txapeladunen fasea) Arizti Handi, Lazkao.

15:30ean, Ostarar-Oiartzun (II. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

17:15ean, Texas Lasartearra-Danena (II. Erregionala, kopa) Michelinen.

17:15ean, Intxaurrondo-Ostadar (I. Iubenila, igoera fasea) Matigoxotegi, Donostian.

Ingandea 26

10:15ean, Ordizia-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Altamira, Ordizian.

10:30ean, Ostarar-Zarauz (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

11:30ean, Sporting de Herrera-Ostadar (Alebinen, Txapeladunen fasea) Herrera, Donostian.

FUTBOL 7

Larunbata 25

17:00etan, Mecanizados Iñaki Ibarra-Niasa-Corpa (III. maila) Zubietan.

FUTBOL 8

Larunbata 25

11:30ean, Zestoa-Lasarte BHI (Infantilen eskolarteko, txapeladunen fasea) Iraeta, Zestoa.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 25

17:45ean, ISU Leioak-Tolargi, (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Play-off

Michelin edo frontoian

11:40ean, Lurra XXI-Jordi

Kiroldegian

14:00etan, Izkiña-Biyona

Ligila eta kontsolazioa

Michelin edo frontoian

9:10ean, IOB.H.K.-Viña del Mar

10:00etan, Ilargi-Katanga

10:50ean, Siglo XX-Morrison

12:30ean, Tragoxka-Epel

15:30ean, Okela-Mayi

Ingandea 26

10:30ean, Aldatz H.K.-UPV Alava, (Euskal Liga) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Play-off

Kiroldegian

09:15ean, ISU Leioak-Izarra

SASKIBALOA

Larunbata 25

18:00etan, Ainhoa-Aldapeta Nucleo, (Gizonezkoen seniorra) Kiroldegian.

PALA

Larunbata 25

XV. PALA TXAPELKETA

Finalurrekoak

Michelingo frontoian

14:45etan, Haritz Urdanpileta eta Xabier Etxezarreta-Bernaitz Odriozola eta Santi Martín

Ingandea 26

XV. PALA TXAPELKETA

Finalurrekoak

Michelingo frontoian

09:15ean, Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga-Iñaki Lizaso eta Alain Etxebeite

SQUASH

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

Ostirala 24

Kinin Calvo-Diego Barrasa Aitor Artola-Xabier Amiano

Astlehena 27

Iñaki Garcia-Agustín Erkizia Aitor Reyes-Julen Vega

Asteartea 28

J.A.Ramos-Txema Valles Alberto Udabe-Iker Cañedo

Asteazkena 29

Xabier Amiano-Kinin Calvo Agustín Erkizia-Aitor Artola

Osteguna 30

Julen Vega-Iñaki Garcia Txema Valles- Aitor Reyes

PILOTA

Larunbata 25

XLII. HERRIARTEKO TXAPELKETA

Michelingo frontoian

16:30ean, Lasarte-Oria-Idiazabal

UDABERRI TXAPELKETA

16:00etan, Intza 2-Alde Zaharra (Eskuz binaka, infantila)

Astigarraigan.

16:00etan, Euskal Giroa 2-Intza 3 (Eskuz binaka, infantila)

Igeldo, Donostian.

JUDO

Ingandea 26

Egun osoa, LOKEko infantilak Gipuzkoako Txapelketan, Lezon.

IGERIKETA

Larunbata 25

16:00etan, Buruntzaldeako taldeak Liga Probintzialeko 5. jardunaldian, Andoainen.

BOLA-JOKOA

Ingandea 26

10:00etan, Ostararreko bolo sailak Gipuzkoako kopan parte hartuko du, Herrera, Donostian.

Pilotariak ondo hasi dute Herriarte Txapelketa

- Kadete, gazte eta nagusiek irabazi egin zuten Idiazabalen.
- Larunbat arratsaldean Mitxelinen erabakiko da kanporaketa.
- Azken urtetan lehen aldiz, aurrera egiteko aukera daukate.

Lasarte-Oriako pilotariak ondo hasi dute XLII. Gipuzkoako Herriarte Txapelketa. 3-0 irabazi zioten Idiazabalo taldeari etxetik kanpo: kadete, gazte eta nagusiek, hiru bikoteek, irabazi zuten eta kanporaketa gairatzeko aukera ezin hobea dute beraz. Hori gertatzen bada, azken urteotako joera aldatzeko da: azken hiruzpalau urtetan ez da herriko taldea lehen neurketatik pasa eta zaleak horretara ohituta ziren jada. Aurten, ordea, aukera asko dituzte Herriarte Txapelketako bigarren kanporaketara pasatzeko. Larunbat arratsaldean emaitza borobildu eta aurrera eginez gero, Elgoibarko taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak maiztzeko lehen bi asteburuetan.

Herriko pilotariak zein pilota saileko arduradunek ez zuten espero Idiazabalen aurkako neurketan horrelako emaitza ona izaterik. Jon Pello Artetxe gazteak adierazi digunez, lehen ezustekoa kadeteen arteko neurketan bertan hartu zuten. Ez zuten uste hain erraz nagusituko zirenik eta inondik inora Idiazabalo bikotean hain ahula izango zenik. Herriko Ander Rekondo eta Unai De Miguelek 22-14 irabazi zuten.

Ondoren, Jon Pello Artetxe bera eta Gorka Mendizabal erraz nagusitu ziren 22-2 gazte mailako Idiazabalo bikotearen aurka. Hauek ere ez zuten uste aurrean hain bikote ahula

izango zutenik eta beraz ez zuten hain erraz nagusitzerik espero.

Lehiarik gogorrena nagusien mailakoa izan zen. Lasarte-Oria eta Idiazabalo seniorrek ordu beteko norgehiagoka jokatu zuten eta azkenik, herriko Aitor Aranburu eta Xabier Arteaga nagusitu ziren 22-12. Emaitza hauek kontutan hartuta aurrera egiteko nahikoa dute lasarte-oriarrek larunbat arratsaldean Mitxelingo pilotalekuan jokatu-ko diren hiru partiduetatik bat irabaztea eta hirurak galduta ere tantoetan alde handia dute

euren alde, Idiazabaloek 28 tanto egin baitzituzten bakarrik.

Jon Pello Artetxe aitortu digu ez dutela aurten talde oso ona, bere ustez aurreko urteetan baino kaxkarragoa da, eta hala ere aurten aspaldiko partez lehen kanporaketa pasatuko dute.

Azken hiruzpalau urtetan lehen neurketan jada kanpoan geratu da herriko taldea. Pasatzen baldin badira, Elgoibarren aurka jokatu dute final zortzirena maiztza hasieran, eta hori oso zaila ikusten du Artetxe. "Ez dugu Elgoibarko taldea ezagutzen, baina suertea beharko dugu" adierazi digu. Txapelketan aurrera egiteko hiru bikote on behar dira eta aurten kadetetaren dute bere ustez hutsunerik handiena.

Gipuzkoako Herri arteko Txapelketan, guztira 23 herrik hartuko dute parte, eta Jose Felix Solanok Pilotako arduradunak aitortu duenez, zaila izango du Lasarte-Oriak oso aurrera iristeko, talde oso gazte eta esperientzia gutxikoa izanik. Azkenengo aldiz 2002an izan zen Lasarte-Oria herriarte txapelketa honetako finalean.

Momentuz, larunbat honetan arratsaldeko 16:30etan hasita Mitxelingo frontoian Idiazabalo pilotarien aurka jokatu dute lasarte-oriarrek bueltako partidua. •



Jon Pello Artetxe gogoz ari da Herriarte Txapelketan eta baita urtean zehar jokatzeko dituen beste sariketatik ere.

Leire Zubizarreta judoka bikain aritu da Portugalen nazioarteko txapelketa batean

Lasarte-Oriako judokek batean kale eta bestean bale egin dute asteburu honetan zituzen lehiatan: Beñat Elizalde Espainako txapelketan parte hartzeko zen, baina zoritxarrez min hartu zuen azken unean eta etxean gelditu behar izan zuen. Hori izan da

asteburuan Lasarte-Oriako judo arloan parterik tristeena.

Leire Zubizarreta, aldiz, Portugalen izan zen Espainako selekzioarekin eta txapelketa bikaina burutu zuen.

Kadete mailako sariketan bigarrena izan da Zubizarreta sei borrokaldi egin eta gero.

Bestalde, igandean Lezon hasiberrien Gipuzkoako Txapelketa jokatu da eta bertan Lasarte-Oriako sei kirolarik hartuko dute parte: Kiara Tobajas, Unai Giraldo, Josu Olmos, Abayuba Gutierrez, Imanol Gonzalez eta Iñigo Matxain bertan izango dira. •

Egunero

Erakusketa

ENRIQUE PIMOULIER argazkilarik Beste aldetiko begiradak izeneko erakusketa, XI. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Apirilaren 16tik 30era. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Ostirala, 24

Musika

AINHOA MERZERO ETA ARIEL CRUZ Laurencioren eskutik musika klasikoko kontzertua. Danok Kide antolatuta. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Proiektzioa

Ttakun K.E.k herriaren laguntzaz antolatutako 7. EUSKARAREN MARATOIKO BIDEOAREN EMANALDIA eskainiko da. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan. Doan



XX. Jam sesioa Jalgin


Jalgiko Jam sesioen XX. sasioa ospatuko da gaur. Eta horretarako V.O.S. 4tet taldea gonbidatuko da, jazz eta soul estiloetan adituak. Talde honek, Hondarribiako Karma aretoan askotan eman ditu emanaldiak, eta bere partaideen artean Paco Díaz musikaria ere aurkitzen da, Akelarre talde mitikoaren baterijolea.. Animatu parte hartzera.

GAUR OSTIRALA
JALGI KAFE-ANTZOKIA
GAUEKO 22:30EAN

Larunbata, 25

Antzerkia

MUNSTRUAK AKATU antzezlan eskainiko da haurrentzako antzerkia atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



Igandea, 26

Zinea

EL VALIENTE DESPERAUX filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:30ean.

Dagokionari

Bandalismoa Oztaranen

Apirilaren 18an, larunbata, Oztaraneko plazan zenbait ekintza bandaliko burutu ziren, eta ondorioz kulunkarietako bat puskatu zuten. Auzokide batzuk ekintzaren testigu izan ziren eta, jakina da auzokoen artean, talde horrek beste legez kanpoko ekintzak egiten dituela. Elkarrekin lau galdera eginez auzoan arazo larria dagoela egiaztatzen da.

Horregatik, komunikabide honen bidez, OZTABIDE Arranbide eta Oztaraneko auzo elkarteak protesta indartsua egin nahi du zentzugabeko ekintza hauen aurrean. Izan ere, auzoan parkea lortzeko hainbeste borrokatu duten gurasoen eta, batez ere, hiri-altzariak zaindu zituzten haurren aurrak ekintza izan baita.

Era berean, hiritarren segurtasuna azpimarratu nahiko genuke, legeak bete araztea edo informazioa biltzea ez da Lasarte-Oriako bizilagunen lana. Udal autoritatea dago horretarako, nahiz eta maiz ez dagoenaren irudipena izan gure artean.

Hau guztiagatik, mota honetako ekintzak kontrolatzeko neurriak har ditzan eskatzen diogu Udalari, ondorio larriagoak dituen edozer gertatu baino lehen.

OZTABIDE Arranbide - Oztaran auzo elkarteak

ERREDAKZIOAN ITZULIA



Oharrak

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxeraterik kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkatzeko da eta odol falta dago!

Begirale izateko

Ttakunek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448

edo mezua bidali: aisia@ttakun.kun.com.

Lehen Sorospenen ikastaroa
DYA Gipuzkoak antolatuta datorren apirilaren 27an Lehen Sorospen eta sorosle ikastaro berri bati hasiera emango zaio Usurbilen.

Hiru aste iraungo du ikastaroak eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da astelehenetik ostiralera Parrokiko lokaletan (Kale Nagusia 25). Ikastaroa gainditzeko denak, EHUrako 2 kreditu jasotzeko aukera izango du. Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delarik 90 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearen.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464622 telefonora.

CNT-AITren leku aldaketa

CNT-AIT-ren egoitza aldatu egin dute. Orain arte Lasarte-Oriako Golf plazan zegoen bulegoa utzi eta hemendik aurrera Donostian izango dira, konkretuki Ferrerías plazan (Añoeta futbol zelaiko inguruan).

Oztabide auzo elkartearen bilera

Arranbide eta Oztaran-eko bizilagunei jakinarazten zaie, Oztabide auzo-elkarteak bilerak egiteko deia egin duela.

Bihar larunbata goizeko 11:00etan Oztabideko lokaletan (Oztaran ikastetxearen atzekaldean) burutuko den bilerara Arranbide eta Oztaraneko bizilagun denak daude gonbidatuta.

Zalantzarik izanez gero, deitu 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefono

zenbakietara edo idatzi oztabide@hotmail.com helbide elektronikora.

Zabaleta auzoko festak

Zabaleta Auzolanek jakin arazten du, ekainaren 2tik 7ra burutuko diren auzoko festak antolatzeko bilerak egingo direla, ostegunero 19:30etan, Antonio Blas plazan.

Marrazki eta pintura ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagun elkarteak jakin arazten du, maiatzaren 1 eta 2an ez dela pintura eta marrazki klaserik egongo Kultur etxea itxia dago eta.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Kiroletako oharrak

Bolo ikastaroa

Joxe Zapirain eta Josean Montesek larunbatean, apirilaren 25ean, ekingo diote boloetako ikastaroari. Boloetan nola jokatzeko den ikasi nahi duten 7 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da. Lehenengo bilera larunbatean izango da Michelingo bolatokia eguerdiko 12:00etan. Larunbatero ordu betez bolotan aritzeko aukera izango dute hurrek.



Lasarte-Oriako taldeak II. Kale Antzerki egunean

■ Landaberri Eskolako dantza garaikideko taldeak eta Makulu Ken Usurbilen

Kale antzerkia gustuko duen orok egun ezin hobe igarotzeko aukera du bihar, izan ere, Usurbilgo kaleak antzerkiz beteko baitira.

Donostia, Bilbo edo Errenteriako antzerki talde ezberdinek bere lanak erakutsiko dituzte Usurbilgo kaleetan zehar eta Lasarte-Oriako Landaberri Antzerki Eskolako taldea ere bertan egongo da.

Antzerki eskolako dantza garaikideko taldeak izango dira, hain zuzen ere, Usurbilgo frontoian 12:15ean emanaldia eskainiko dutenak.

Helduak eta gazteak

Maidar Oiartzabal arduradunarekin hitz egin dugu emanaldiari eta gonbitari buruz gehiago jakiteko.

“Antolatzaileak Landaberriko Antzerki eskolarekin jarri ziren harremanetan. Dantza

garaikideko taldek zeudela aipatu eta gonbidatu gintuzten,” azaldu digu Maidarrek, “honela, sei talde eramango ditugu Usurbilera, DBH,

Batxilergoko eta helduen taldeak. Guztira, 60 bat pertona izango gara.”

Dantza motari dagokionez, “helduen taldeek dantza

garaikidea eskainiko dute. Hauetako batek dantza emozionalagoa egingo du, poetikoagoa”, adierazi digu, “gazteek, berriaz, dantza modernoagoak eskainiko dituzte. Erritmo bizi eta alaiak dantzatzeko dituzte, haien indarra erakutsiaz.”

Amaiera kontzertua

Baina hauek ez dira antzerki egunean parte hartuko duten herriko talde bakarrak izango.

Deabru Beltza taldearen *Les Tambours de Feu* emanaldiaren ostean, II. Kale antzerki egunari amaiera emateko, Makulu Ken talde lasarteoriatarrak frontoian kontzertua eskainiko du festa ordu txikiak arte luzatuz.

Beraz, biharko planik ez baldin baduzu, hona hemen aukera, Usurbilgo II. Kale antzerki eguna. •



Herriko 60ren bat dantzarik Usurbilgo frontoian dantzatzeko dute.

Egitaraua

- 12:00etan, RIKI, TXER ETA KONPAINIA, **Dema plazan**
- 12:15ean, LANDABERRI ANTZERKI ESKOLA: DANTZA GARAIKIDEA, **frontoian**
- Ondoren, KOBLEKARI taldearekin **kalejira**
- 13:15ean, TXERRIKI taldearen OASIA, **frontoi atzean**
- Ondoren, MOTO KLASIKOAK, **Dema plazan**
- 14:30-16:00, MOTO KLASIKOAK, **Iturralde farmaziaren aurrean**
- 16:30ean, BULULUAK taldearen MIMOAK, **Artzabalen**
- 17:10ean, TKG taldearen BIAURPEGI, **kaxkoan**
- 17:30ean, DE BOTE EN BOTE taldearen ARGOTU, **kaxkoan**
- 18:15ean, TRACKTOROCK, **kaleetan zehar**
- 18:30ean, BURDINKLASH, **kaleetan zehar**
- 18:50ean, ALPROJA taldearen MOZTU!, **Dema plazan**
- 20:15ean, TRAPU ZAHARRAK taldearen ATERPEA, **frontoi atzean**
- 23:30ean, LABEA taldearen K(H)ARRIKAK, **Dema plazan**
- 24:00etan, DEABRU BELTZAK taldearen LES TAMBOURS DE FEU, **Dema plazan**
- Ondoren, MAKULU KEN taldearen kontzertua, **frontoian**



Razioak
Entsaladak
Sandwichak
Hanburgesak
Bokatak
Pizzak



**EGUNEKO
MENUA**



Plater konbinatuak
Oilasko erreak
Otorduak enkarguz
Postreak

ERAMATEKO ERE PRESTATZEN DUGU

Kale Nagusia 71-73 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 369341 // 676 906121